# Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria
2013/9/27 I 389

- Galtzaundiko komunitatearen iritzia
- Ez adiorik!
- Galtzaundi 389 ale
- Agenda



## Ez adiorik!













galtzaundi
euskara taldea

Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
Helbidea: Nafarroa etorbidea, 6-behea. 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 655 004
Faxa: 943 654 983
e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
Webgunea: www.galtzaundi.com
Koordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Manex Izagirre, Ibon Artola, Unai Igartua, May Gorostiaga, Artubi elkartea, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Eneritz Iraola, Josu Iztueta, Txarli Gesteira, Aritz Larreta, Begoña Aristi eta Zigor Agirrezabala

Publizitatea: Bidera Publizitatea 661 678 818 • aetxaniz@bidera.eu
Banatzaileak: Olatz Garmendia, Juankar Arregi
Zuzentzailea: Nora Olano
Maketazioa: Galtzaundi
Diseinua: Zigor Agirrezabala goitik
Azala: Galtzaundi
Inprimategia: Antza.
Tirada: 4.500 ale
Lege gordailua: SS-906/91
Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

TOLOSAKO UDALA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

kutxa gizarte ekintza

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.

Galtzaundin azaldutako iragarleek diruz lagundu dute argitalpena.




## Erreportaia:
## Ez adiorik!

Garai, etapa, aro, sasoi, epoka baten amaieraren berri ematea dagokigu. Irakurle, eskuartean duzun Galtzaundi Aldizkaria, Galtzaundi Euskara Taldeak kaleratuko duen azken alea da. Hodei beltzen artetik iritsitako albistea baino, eguzki printzez argitutako berria da. Aurrera begira, proiektu komunikatibo berri baten atarian baikaude. Eskualdeko euskarazko komunikabideok elkarrekin abian jarriko duguna. Batuta, eraginkorrago izateko helburuz.

11-12. orrialdeak

Galtzaundiko komunitatearen iritzia 4-10
Galtzaundi 389 ale 13-19
Agenda 20-21

# Proiektua indar berritzen



**Xabier Saizar**
Galtzaundiko Lehendakaria

Galtzaundi Euskara Taldea sortu genuenetik 23 urte igaro dira. Euskararen normalizazioa helburu, egitasmo ugari gauzatu ditugu, tartean, Galtzaundi aldizkaria. Denbora tarte horretan, euskarazko komunikabide berriak sortu dira eskualdean eta, komunikazioaren alorrean ere, izugarrizko iraultza gertatu da. Elkarrekiko errespetua oinarri, eskualderako komunikazio eskaintzarik egokiena nola egin aztertzen aritu gara azken urteetan hainbat eragile. Zintzotasunez egindako ariketa horren ondorio izan da Tolosaldeko Komunikazio Taldea (TKT) enpresaren sorrera. Bera arduratuko da hemendik aurrera eskualdeari begirako komunikazio eskaintza egiteaz.

Euskararen normalizazioa helburu handiegia da esku pribatuetan uzteko. Horregatik, euskalgintzan diharduten eragileak izango dira komunikazio enpresa berriko administrazio kontseiluko ordezkariak, tartean, Galtzaundi Euskara Taldea.

Hemendik aurrera ere, herri gogoa astintzeko komunikazioa, eragileen inplikazioa sustatzeko elkarlana eta etxez etxeko euskararen erabilera indartzeko euskara planak abiapuntu, izango du zer eginik gure elkarteak. Ilusioz garatu dugu garai berrietarako egitasmoa eta euskararen normalizazioa helburu duen oinarri sozial sendoarekin gauzatu asmo dugu. Euskaraz bizi nahi duten herritarren eta eragileen informazio beharrak asetzeaz TKT arduratuko da eta, Galtzaundi, oinarri sozial hori kohesionatu eta euskarak pauso berriak emateko plangintzak gauzatzeaz.

Urte hauetan guztietan gurekin izateagatik eskerrak eman nahi dizkizugu, aurrerantzean ere, euskararen normalizazioa helburu, Galtzaundirekin elkarlanean jarraitu dezazun eskatuaz batera.

Ilusioz beterik gaude, euskaldun bezala guztia dugulako irabazteko.

# Bidaide atsegina



**Xabier Bengoetxea**
Soziolinguista eta Galtzaundiko bazkidea

*"Tolosaldeko berriak zabaldu nahi ditu Galtzaundi honek,"ñ"-aren arazorik ez duen hizkuntzan"*. Horrela agertzen zen 1991n argitaratu zen Galtzaundi aldizkariaren lehen aleko lehen orrialdean zuen xedea. Urtebete lehenago sortua zen Galtzaundi euskara elkartea. Tolosaldeko euskal hiztun komunitatearen erreferente eta bilgune izatea zuen helburu.

Hiztun komunitatea indartzeko funtsezkoak dira harreman-sareak elikatzea; familia giroan, auzo mailan eta gizarte-bizitzako elkar-giroan hartuko du hizkuntzak (gure kasuan euskarak) *"behar duyen thornuya"*. Ahozko jarduna funtsezkoa eta oinarrizkoa izanik ere, hizkuntza idatziaren esparruari, kultura letratuari, ezin dio izkina egin euskarak, gizarte-bizitzan lekurik izango badu. Leku hori aitortu eta landu du, besteak beste, Galtzaundi aldizkariak.

Erreportajeak, elkarrizketak, iritzi-artikuluak, Tolosaldeko hiztun komunitatearen arrangurak, nekeak, pozak… Tolosaldean egosten dena, gertuko bizi-giroa, plater txukun eta ondo hornituetan zerbitzatu dizkigu irakurleoi. Eskualdeko luma zorrotzei esker, berriak euskaraz jasotzen ohitu gara, hizkuntzaren errepertorio jasoarekin janzten joan gara. Iritzi-trukea ahalbidetu du, egitasmoen berri zabaldu, hiztun komunitatearen taupaden lekuko izan da, lorpenak eta ezinak mahaigaineratuz. Leiho ezin hobea izan dugu Tolosaldeko bizi-giroa begiratu eta ulertzen saiatzeko, pertsonak ezagutzeko, egitasmoen berri izateko. Hiztun komunitatea trinkotzeaz gain, euskarari ikusgarritasuna eman dio, prestigioa. Autorregulazio soziokulturalerako tresna egokia izan da. Hiztun komunitatearen harreman-sareak ehundu ditu eta elkarren berri izateko baliagarria gertatu da. Bidaide atsegina, jakintsua eta egokia izan dugu.

Hogeita bi urteko lana eskertu. Heldutasunean, beste janzkera batekin, egungora egokituta, hiztun komunitatea kohesionatzen, biltzen eta artikulatzen jarraitzea desira diogu Galtzaundi berriari.





# Ez adiorik, Galtzaundi

Tristurarik ez *"Galtzaundi"*ren azken alerako idatziko ditudan lerrootan, aldizkaria ez baitoa desagertzera, Fenix hegaztia bailitzan bere errautsetatik, beste errauts batzuekin batera birsortzera baizik.

Eta errauts horien bidez egingo duen ekarpenean joango dira urte hauetan guztietan bildutako eskarmentua eta ondarea. Lehen alearen azala dut aurrean. Zenbat ilusio eta energia bildu ziren sorrera hartan! Bi hamarkada aberats bezain konplexu, emankor bezain liskartsu joan dira geroztik. Denok ikasi dugu zerbait baino gehiago bide horretan. Horren emaitza da, besteak beste, sortzera doan egitasmo berria.

Ziklo bat amaitu da eta beste berri bati emango baitiogu hasiera Tolosaldean. Euskarazko hedabideen esparrua garai berrietara egokitu da eta eskaintza bateratu bat sortuko da laster.

Albiste ona dugu hau, ezbairik gabe. Eta honek ekarri beharko luke, eskualdean hedabide indartsuago, interesgarriago, osatuago eta zabalago bat egitea.

Komentziturik nago, bateratze honen bidez, Tolosaldeko euskaltzaleak trinkotzeko eta euskararen normalizazioa bultzatzeko lanabes egokiago bat izango dugula.

Zorte on egitasmoan jardungo duzuen guztioi. Ez adiorik, Galtzaundi!



**Kike Amonarriz**
Aurkezlea, Soziolinguista eta Galtzaundiko sortzailea

# RIP

Mahomaren Rip, Kortatu, Barrikada, Hertzainak... punkak eta batez ere rockak euskal gazteriaren bihotzak gogor astintzen zituen 90. hamarkadaren hasieran atera zen Galtzaundi aldizkariaren lehen zenbakia. Papergintzaren gainbeherarekin batera Oria ibaia garbitzean, aspaldiko partez agertzen hasi ziren uroiloak ziren protagonista, Silvia Mateok diseinaturiko azalean.

Elkarrizketa egiteko Karlos Mendibilek lagundu zidala gogoan dut. Ordenagailuen hastapen haietan, etxeetan ez zen izaten eta Plaza Berriko lokalean zegoenarekin ikasi genuen bere erabilpena.

Lagunartean, giro ederrean aritzen ginen lanean, Joxean Goikoetxea publizista, Joxemi Saizar, Imanol Ubeda, Jon Ander Ubeda, Iker Altuna, Maite Artola, Nerea Pikabea eta abar... Galtzaundi izen horren eredugarria izan ez arren, Forumeko Xabier Arzallusen adierazpen eztabaidagarriak edo antolatzen ziren rock kontzertu jendetsuak zirela medio Galtzaundik izena eta izana irabazi zuen. Galtzaundi aldizkarian argi genuen, hasieratik, herritar guztien ahotsei euskaraz argitaratzeko erronkari eutsi behar geniola, garaiko istilu politikoetatik gaindi, eta bestetik, herriko komertzio eta tabernarien konplizitate formula egokia bilatu zen, publizitatearen ordainetan euskarazko argitalpena, herritarren eskura jarriaz. Juankar Arregik Tolosaldeko txoko urrutienetara ere hilabetero banatzen zuen Galtzaundi aldizkaria.

Hilabetekari, hamabostekaria... Iñaki Epelderen logo berria... Urteotan nahikoa bizipen izateko aukera eman dit Galtzaundi aldizkariak. Pio Baroja, Unamuno, Arrese-Beitia ezagutu zituen Luis Olarra, Kaxiano herritarra, Juan Garmendia gizon jakintsu eta eskuzabala, balio handiko Arantxa Iturbe idazle eta kazetari prestua edo Iñaki Epelde moduko sortzaile apalengandik asko ikasi dut. Kultur Leiho sailerako iturri agortezina bilatu genuen. Elkarrizketatu bakoitzari hitza ematen saiatu gara. Kultur Leiho saileko argazkiak Lehen, Richard, Joseba Urretabizkaia eta bukaera aldean, hil berri den Josu Otaegik egiten zituen.

Galtzaundi aldizkariaren azkena izango den honen ondorengoak, 90. hamarkadan hasitako euskarazko herri prentsaren arnas zabal eta irekiak izango ote du jarraipena egitasmo berrian! Galtzaundi aldizkariaren izana, bere apaltasunean, bilakatuko ote da bizigai Xabier Leteren poema ederrak dioenaren arabera, jaiotzear den Tolosaldeko euskarazko argitalpenean!

Kamera eskutan, herriko irudien ehizan aritzen hintzen irribarrea ahoan, Josu; hagoen tokitik, Euskal Herri euskaldun eta bizi baten argazkia ateratzeko prest somatzen haut!

Requiescat in pace.



**Felix Aiestaran**
Galtzaundiko kolaboratzailea eta sortzailea

# Bizirik mantendu den sua



**Leire Zubeldia**
Kazetaria eta Galtzaundiko bazkidea

Galtzaundiri buruz idazteko esan didate: Zer suposatu duen eskualdearentzat eta euskararentzat, bertan kazetari gisa egindako denboran bizitakoa… Orri zuriaren aurrean jarri eta… burura etortritako oroitzapen jarioa antolatzen nahiko lan! Gehienak gozoak dira. Adibidez, lankideen artean genuen giro ona, edota elkarrizketen aitzakian ezagututako jende andana, konturatzea nola eragileek komunikazio tresna gisa bere egiten zuten Galtzaundi gure deiei erantzunez eta baita eurak gugana joz ere. Une gaziak ere izan dira, noski: Axun Aierbe, Galtzaundiko lehenengo lehendakariaren heriotza dut gogoan, eta bere omenez egin genuen alea. Igarotako une ekonomiko latzak, edota zuzendaritzarik gabe proiektua bertan behera geratzeko zorian egon zenekoa. Baina une latz horiek gainditu izanak indartsuago egin du Galtzaundi Euskara Taldea. Euskararen eragile sutsua izan da jaio zenetik gaur arte. Eskualdean euskararen aldeko mugimendua hain ahul egon den urteetan garra bizirik mantendu du, auspotu egin du, eta su horren beroa gaurdaino ekartzea lortu du. Orain, eskualdeak euskara hutsezko komunikabide multimedia indartsuagoa bat, eraginkorrago bat izango du. Hau omen Galtzaundi zaharraren azken alea. Baina azkenak ez dakar amaiera, bide berri baten hasiera baizik. Zorte ona opa diot, bada, komunikabide berri horri. Eta zorionak Galtzaundiko zuzendaritza, langile, kolaboratzaile eta bazkide, publizitatea jarri duten iragarle eta irakurleei. Finean, eurek egin dute Galtzaundi, eurak izan dira Galtzaundi.

# Animo eta aurrera



**Mª Angeles Zubillaga**
Mintzalaguneko hiztuna
eta Galtzaundiko bazkidea

Orain egun gutxi, bat-batean jakin nuen, Galtzaundi Aldizkariaren albisteak bere azkenean zeudela, erabat harritu nintzen, ezin nuen sinetsi, baina berehala argitu zidaten jarraituko zutela orain bezala, Tolosa eta eskualdeko herrien albiste eta berriak zabaltzen, baina beste izen batekin eta bestelako komunikabideekin bat eginda.

Gauzak horrela, aipatu nahi nuke Galtzaundi Aldizkari honek, suposatu duena Tolosako eta inguruko euskaldunentzat. Orain urte batzuk, euskara ahul xamar zegoen garai haietan, talde batek ardura guztiz hartu zuen Aldizkaria sortzeko erabakia, eta jakina den bezala Euskara hutsean. Era horretan hasi zen gure etxeko sukalde eta egongelatan sartzen, izena ere Tolosarrentzat hain mitikoa den "Galtzaundi" ipini zioten.

Zer eman digu Galtzaundik? Bada albisteak, gertakizunak, argazkiak, etab. hasierako orrietatik azkenetaraino oso txukun aurkezturik, eta hau guztiaren gainetik den dena Euskaraz.

Ziur nago aldizkaria irakurri dugunok, orain urte batzuk baino erraztasun handiagorekin irakurtzen dugula, batez ere helduok. Bere Euskara izanda garbia, txukuna, uler erraza edozeinentzat. Euskara ikasten ibilitakoen artean ere badaude ikasitakoa lantzeko, aldizkari hau eskuratzen dutenak.

Beraz eskerrik asko lan hauetan aritu zareten guztioi, eta aurrerantzean ere jarrai bide horretatik, Euskarak eta euskaldunok behar zaituztegu.

Orain agur esan beharko diogu Galtzaundiri, baina Zorionez beste bat jaioko zaigu. Ongi etorria izan dadila, ilusio handiz hartuko dugu, orain arte bezala gure hizkuntza zabaltzen eta indartzen joan dadin.

Animo eta Aurrera.



# Galtzaundiren banaketaz…



**Olatz Garmendia**
Galtzaundiko
banatzailea

Galtzaundi banatzen hasi nintzenean, denboraldi baterako izango zela garbi nekien eta ez nuen pentsatu hainbeste urte pasako nituenik, 8 urte. Galtzaundiren sortzaileetako bat, proiektu berriari hasiera eta jarraipena eman ziona, eta ilusio handiz lan egin zuena, Mariaxun Aierbe izan zen; auzokoa eta laguna nuen eta harro sentitzen naiz berak hasitako proiektuan honetan nire ekarpen xumea egiteagatik.

Galtzaundi Aldizkariaren azken alearen berri jakin nuenetik, Mariaxun Aierbe bera izan dut gogoan, azken egunotan. Bere proiektuari modu apalean jarraipena eman izan diot urte hauetan. Aldizkaria banatzea besterik izan ez bada ere, Galtzaundi taldeko partaide sentitu naiz, eta beraz, eskerrik asko guztioi. Eskerrik asko dendariei, tabernariei,... hamabostean behin, Galtzaundi Aldizkariaren banaketa errazten didazunei. Hasierako banaketa haietan zerrendak eskuan hartuta joan behar izaten nuen, taberna haren ondoren zein denda tokatzen ote zitzaidan jakiteko… Denborarekin ibilbidea erabat gogoan hartu eta paperik gabe egiten nuen, Tolosako kaleak sigi-saga ibiliz.

Azkenik, eskerrik asko baita ere, nola ez, irakurleei, zuengatik izan ez balitz, ez litzatekeelako horrelako lanik euskaraz argitaratuko.

# Agurra



[redacted]

Duela lau urte Galtzaundi eraberritu zutenean, kolaboratzaile bezala parte hartzeko gonbitea jaso nuen eta lau urte hauetan euskara, sarea eta teknologia berriei txoko bat egin diegu Zintzilik atalean.

Sarea, eta teknologia berriak oro har etengabe, momentu oro aldatzen ari dira, baita komunikatzeko moduak ere. Paperean idatzitako prentsaren aroa agortzear dagoela dirudi, finantziazio iturriak eta diru sarrerak gero eta eskasagoak dira, kontsumo ereduak aldatu direlako, krisia dela eta ... Euskarri digitalak aldiz, gero eta indar gehiago hartzen du. Internetek bat-bateko komunikazioa ahalbidetzen du, momentu oro eguneratzen ari dena. Eta komunikabideez gain herritarrek ere informazio hori sortu, kudeatu eta zabaltzeko ahalmen handia dute. Galtzaundi, eta eskualdeko hainbat hedabide, Hitza eta Txolarre Irratiak pauso bat aurrera ematera doaz, indarrak batu eta aurrera egiteko asmotan. Tolosaldeko euskal komunikabideen proiektu komunikatibo bateratua. Aurrerapauso estrategiko eta ausarta bezain beharrezkoa.

Eskualdean euskarazko komunikazioak etorkizun oparoa izango duela ziur nago, eta horretan, herritarrak, bidelagun izango gaituzue.

Eskerrik asko Galtzaundiko lantalde osoari zuen, eta gure proiektu honetan parte-hartzeko aukera eman izanagatik.
















# Galtzaundi, Santamaria parrokiko melodia



**Josu Iztueta**
Galtzaundiko sortzailea eta kolaboratzailea

Igande goizeko bederatziak (irailak 22),Tolosako alde zaharrean, txistulari bandaren doinuak batetik eta Santamaria parrokiko kanpaiak bestetik, Galtzaundiren melodia TILIN, TAN TON, TILIN TAN TON....entzun eta GALTZAUNDI aldizkariaren azken alerako kolaborazioa idazten hasi naiz... pufff... memoriak atzera egin eta 1991ko maiatzera joan naiz.

Aldizkariaren 0 alea, hilabetekaria izango zenaren aurkezpenekoa, Oria ibaian bisitari berri ziren ahateak azalera ekarri nahi eta argazkia aukeratu genuen, inprimategira bidali eta... kaka zaharra, publizitateak estali zituen "patoak", orduan "notizi" ziren hegaztiak ikusiezinak bihurtu genituen.

Urruti geratzen dira denboran Epeldek asmatutako lehen logoa (eskerrik asko Iñaki), Plaza Berriko lokalean astelehenero zegoen pixa kiratsa, erreportaiak egiteko ilusioa, lanak banatzeko ardura, publizitatea lortzeko ahalegina, maketazioan erabiltzen ziren metodoak, aldizkariak paperean iritsi berriko emozioa, kotxea hartu eta herriz herriko banaketa... Ez ginen beti gustura geratzen eta tarteka orduko alkate jaunari esplikazioak eman beharrean izaten ginen.

Gerora garai berriak iritsi ziren: kolorea, hamabostekaria, aldaketak, berrikuntzak, moldaketak, noiz behinka disgustuak eta haserreak ere izan dira... Ahulduta nahiz indartuta ateratzeko baino normalean zatiketa gehiago metaketa baino.

Euskararen ezagutzan aurrerapauso handiak egin ditugu, erabileran ez hainbeste. Bitartekoak jarri dira, nahikoa iruditu ez arren askotan errazegi gastatu da dirua. Euskalgintzan autokritika faltatu zaigu, gainbeheran gaude, gauzak ondo eginda zaila bada irautea erdipurdiko bilakaerak ez du etorkizunik... Santamariako kanpaiak berriro entzuten ditudanean aldizkari hilberriarenak direla irudikatuko dut, orain zer egin erabaki beharko dugu: lurperatu edo erraustu.

# Galtzak haundi



**Antton Izagirre**
Irakaslea eta Galtzaundiko iritzi emalea

Tolosa eta Ihauteriak iltzaturik daude tolosar eta kanpotarren memorian, baita Ihauteriak eta Galtzaundi pertsonaia ere. Galtzaundi Euskara Taldea dualtasun horren euskal arima bilakatu dugu urte guzti hauetan. Arima horren haur besoetakoa Galtzaundi aldizkaria izan dugu.

Bertan idazteko parada zoragarria izan dugunok galtza motzetan ezagutu genuen Galtzaundi. Batzuetan mutil kozkorraren aurpegia jarri diogu, beste batzuetan neska-motza gisa irudikatu dugu. Mutila zein neska, Galtzaundik haurtzaro goxoa eta nerabezaro zail eta gorabeheratsua ere ezagutu du. Ezin zitekeen bestela izan. Nola heldu gaztarora, nola sendotu gogoa eta adimena, ogi mamitan hazi denak? Derrigor ezagutu behar zituen gatazka, tirabira, gora eta beherako ibilerak. Larre motzean zaildu behar izan du eta horrela apurka-apurka urte bata eta bestearen joanean, handi zituen galtzak bete ditu eta galtza berriak jantzeko adinera heldu da. Mutil-kozkor ala neska-motza, gazte lerden eta gihartsua egin zaigu. Bizitzaren legea!

Aro berri bati heldu behar horrek sentipen nahasiak sorrarazten dizkigu: beldurra, mira, agur-mina, erronka, itxaropena, bizipoza...

Aitortzen dut, Galtzaundiren agurreko lerro hauek, joandako egunak gogoan, nigan sortzen duten nostalgiaren lekuko direla.

Amaiera hau etorkizun oparoaren hasiera izango dela, ez dut zalantzarik. Ez adiorik, gero arte Galtzaundi!

Osasuna eta ongi etorria galtzak bete lan izango duen proiektu berriari!

# Galtzaundi: aurrera eta jarrai



**Joxe Agustin Arrieta**
Irakaslea eta Galtzaundiko iritzi emalea

Galtzaundiren presentzia apala eta xumea izan bada ere, eraginkorra eta hurbilekoa izan da: euskaraz ez bakarrik informatu, baita elkarren arteko komunikazioa zaindu, sakondu, bultzatu eta bideratu. Beste hitzetan, egunerokoari zukua atera.

Gure artean informazioa ikaragarri zabaldu da, gainera azkar eta uneoro. Punta batetik beste mundu ertzeko berriak tximista bezain azkar iristen dira guregaraino. Ez hori bakarrik, komunikabideek daukaten indarra, ahalmena eta abiada ikaragarria da, batzuetan beldurtzekoa. Pentsa, geure etxe barruraino, bururaino eta bihotzeraino ere etorri baitzaizkigu.

Globalizazioa garai aldian gaudenez, toki guztietatik berriaz eta notiziaz osaturik bagaude ere, badugu patxadazko eta zentzuzko komunikazioaren beharra, norbereren bakardadeari komunikazio gunea izango den esparrua, eta neurri horretan "Galtzaundi berria" ikusten dut. Komunikazioa (gogoeta, dibertimendua, planak…) falta zaion pertsonak bakardadea zauritzat bizi du. Ez ote litzateke "Galtzaundi berria" komunikazioaren txokoa eta elkargunea izan behar? Internetez, telebistaz… berri gehiegi daukagu. Baina behar duguna komunikazioa da. "Galtzaundi Berria" komunikazio honen arima bezala ikusten dut.

Ale honek bibrazio berriak, itxaropentsuak eta onak zabaltzea nahiko nuke. Hemen atzean dagoen lantaldea horrela ikusten dut: taupada jatorrez, egiaz bustita, elkartasuna sustatu nahian, berriak zuzen emanez eta ez manipulatuz, giza eskubideak zaindu eta besteen eskubideak zapaldu gabe, eta beti, Tolosaldearen giza arnasa erakutsiz. Izan iraupen eta kemen!

# Laster arte, Galtzaundi



**Garbiñe Biurrun**
Epailea eta Galtzaundiko iritzi emalea

Gogoan dut GALTZAUNDI aldizkaritik proposatu zidatenean tarteka kolaboratzea artikulu batekin. Pentsatu gabe onartu nuen gonbidapena. Dagoeneko ia hamaika urte igaro dira. Bilatzen aritu eta nire lehen kolaborazioa aurkitu dut: 2003ko urtarrilaren 31koa da: "Legeak berritu: egoera okerragotu" izenburua zuen.

Harez gero nik idatzitako hogeita hamasei artikulu GALTZAUNDIn argitaratu dira. Gai desberdinak aztertu ditut: politika, indarkeriaren ondorioak, etxebizitza, justizia, matxismoa, krisia eta bere ondorio sozialak, lan eta pentsioen erreformak, sindikalismoa…

Une honetan, eskerrak eman nahi nizkion GALTZAUNDIri:

a) eskerrak niretzat aukera paregabea eta oso ariketa interesgarria izan delako: derrigortuta egon naiz hausnarketa berezia egitera, ideiak egituratzera eta horiek ahalik eta era txukunenean idaztera.

b) eskerrak -seguruenik, ez dago esateko beharrik- askatasun osoz idatzi dudalako eta inork inoiz ez didalako iradoki ez gairik ezta edukirik ere.

c) eskerrak GALTZAUNDIk harreman estua lortu duelako Tolosaldeko gizartearekin eta bere egunerokotasunean murgildurik egon delako.

d) eskerrak GALTZAUNDIk gizartearekin bat eboluzionatzen jakin duelako eta euskal gizartean gertatutako bilakaera bere barnean ere ikusi izan delako.

e) eskerrak GALTZAUNDI posible izan duten pertsona guzti guztiei, eskuzabaltasun handiz oso bitarteko eskasekin lan bikaina egiten lortu dutelako.

GALTZAUNDI badoa lur zabalago batera, proiektu bateratu berri batera. Eta joan behar du Ramos Azkarateren bertsoetako GALTZAUNDIk alde egin nahi zuen moduan, pozez: jota nabarra joaz eta sobrekamak balkoitan.

Zorte on. Laster arte.

# Ataritik sotora



**Joseba Antxustegietxarte**
Galtzaundiko Zuzendaritza Batzordeko kidea eta aldizkariko komikigilea

Galtzaundik aldizkariari agur esaterakoan Ataria zainduko du, baina barrurago badu zereginik.

Gure euskara elkarteak, ingurune sozialean eragiteko asmoa izanik, horretarako bitartekoak jartzea ezinbestekoa du. Helburuari heldu behar diogu eguneroko zurrunbiloan galdu gabe.

Iritzi honetara ailegatzeko, lanean eginiko hausnarketak daude eta baita ere, Galtzaundiko berriketaldietako adostasunek dakarten indarra. Badira urte mordoxka, gure inguruko herrigintzan, hizkuntza normalkuntzaren atarian geratu garela; azalean gaude eta ez dugu sakontzen. Hezkuntza munduan jira-biraka, gizartea euskalduntzeko dituen mugak kosk egin arte.

Bada garaia sotora sartzeko, norberaren barrura, etxeko sukaldera, kirol elkarteetara… eta lantegietako motorretara. Galtzaundi Euskara Elkarteak hori egiteko libratu ditu eskuak.

Tolosaldea bezalako eskualde pribilegiatu honetan, kale neurketetan euskararen erabilerak gora ezin eginik hamarkada bat badarama. Faktore asko egon daitezke, baina euskaldunten ari diren neska-mutilentzat, gazteentzat eta helduentzat erabilera eremuak indartzen eta antolatzen ez ditugun bitartean, jai dugu. Alperrik dira egiten ditugun zenbait super-ekintzak, zaila dugu horrela gure burua zuritzea; denok zintzo jokatu behar dugu, ez gaitezen engainatu.

Galtzaundi Ataritik sotora doa, goazen denok orain, gero ere ahalegin hori gu bezalakoentzako geratuko da eta.

# Azken ale honetan



**Ione Gorostarzu**
Idazlea eta Galtzaundiko kolaboratzailea

Eskerrak emanez hasi nahi nuke Galtzaundik ale berezi honetan eskainitako tartetxo hau. Eskerrak Galtzaundi posible egin dutenei, urte hauetan guztietan, hilero hasieran, hamabostero ondoren, gure etxeetara garenaren zati bat ekartzeagatik. Aldizkariari esker hobeto ezagutu eta ulertu dugu eskualdea, eta euskaraz egin ere. Ez baitago bide zuzenagorik euskararen alde egiteko euskaraz egitea baino. Sarri askotan, baina, ahaztu egiten zaigu guk dendan hartzen dugun aldizkari hori ez dela doakoa; makina bat lan, izerdi eta ahalegin daudela guzti horren atzean.

Eskerrak, baita ere, Galtzaundiko irakurleei. Nork entzunik ez duena alferrik ari baita hizketan, eta urte batzuetan aldizkarian nire ahotsa zabaltzeko aukera ere izan dudanez, ezin aipatu gabe utzi irakurleak. Batzuek *ikusi zaitut Galtzaundin* esaten zidaten, zertaz aritu nintzen ideia izpirik gabe. Beste batzuek *irakurri dut zure artikulua* eta izaten zen aipagai izandako liburuari buruzko iritzia ematen zidanik ere. Kontuak kontu, plazer bat proiektuan parte hartu eta nire hitzak zuen egongeletara iritsi izana.

Baina ez gaitezen atzera begira geratu, eta agur kutsuak alde batera utzita, jar dezagun begirada hemendik aurrerakoan. Aldatzen ez dena akabatu egiten da, eta ziur nago, izenak izen eta formak forma, Galtzaundik bere izpirituari eutsi bakarra ez, zabaldu eta indartzen jarraituko duela proiektu berriarekin ere. Eta euskaraz bizi nahi dugunok euskaraz sortzen, euskaraz entzuten, euskaraz pentsatzen eta euskaraz irakurtzen jarraituko dugu, nola ez. Animo eta segi aurrera!





# Ez adiorik!

Garai, etapa, aro, sasoi, epoka baten amaieraren berri ematea dagokigu. Irakurle, eskuartean duzun Galtzaundi Aldizkaria, Galtzaundi Euskara Taldeak kaleratuko duen azken alea da. Hodei beltzen artetik iritsitako albistea baino, eguzki printzez argitutako berria da. Aurrera begira, proiektu komunikatibo berri baten atarian baikaude. Eskualdeko euskarazko komunikabideok elkarrekin abian jarriko duguna. Batuta, eraginkorrago izateko helburuz.

1991ko maiatzaren 26an ikusi zuen argia Galtzaundi izenez ezaguna egingo zen aldizkariaren 0 alea. Aldizkaria beraren "ezizenak" zioen bezala, "Tolosaldeko aldizkaria" jaio zen, orain dela 22 urte. Bi hamarkada luzez Tolosaldeko herritarrek eskualdeko albisteen berri jaso dute Galtzaundi Aldizkariaren bitartez.

Hasierako urte haietan hileko azken igandean jasotzen zuten irakurleek "Galtzaundi Tolosaldeko Aldizkaria", gerora "Galtzaundi Tolosaldeko Herri Aldizkaria" bilakatuko zena. Urteen poderioz argitaratze eguna ere aldatu egingo zen, kaleratze eguna ostirala bilakatu zen gerora. Eta baita maiztasuna aldatu ere, 2000. urtean hilabetekaria izatetik hamabostekaria izatera ere pasa zen, bederatzi urteko ibilbidea egina zuela.

Baina buelta gaitezen "0 ale" hura gogoratzera… "Tolosaldeko berriak zabaldu nahi ditu Galtzaundi honek, "ñ"-aren arazorik ez duen hizkuntzan". Hasieratik, Galtzaundi Aldizkariaren zutabea euskara izan da. Eta horrela jakinarazi nahi izan zien Galtzaundi Euskara Taldearen komunikabideak euren irakurleei. Aldizkaria kaleratzen hasi aurretik, urtebeteko lana zekarren atzetik Euskara Taldeak. Izan ere, garaiko Estatuetan jasota geratu den moduan, Tolosan, 1.990eko abenduan sortu zen Galtzaundi Euskara Taldea. Elkartearen egitekoa hasieratik xede berdina-

















Iñaki Epeldek prestatutako diseinuaren borradorea

rekin mantendu da: “euskararen erabileraren normalizazioa eta euskal kulturaren promozioa Tolosan eta inguruan”, Estatutuek horrela baieztatuta.

1991ko aldizkariaren erredakzio taldeari erreparatuta, lehendik ere eskualdean kultura eta euskararen normalizazio alorrean ezagunak ziren izenak ageri dira, baita gerora ere ezagun egindakoak eskualdean eta eskualdetik kanpora ere: Felix Aiestaran, Imanol Ubeda, Jon Ander Ubeda. Joxemi Saizar. Martxelo Otamendi, Iker Altuna. Isitxo Larrañaga eta Luis Anton Gurrutxaga. Diseinuaz hasierako ale hartan Silvia Mateo arduratu zen, lantaldeko emakumezko bakarra. Eta publizitatearen ardura berriz, Josean Goikoetxeak izan zuen.

Aldizkariaren diseinuaren ardura, esan bezala, lehen aletan Silvia Mateok izan zuen. Hala ere, aldizkaria kaleratzen hasi aurretik Joxemi Saizarrek gogora ekarri bezala, hasierako diseinuaren borradorea Iñaki Epeldek prestatu zuen, kartulinak elkarren gainean itsatsiz, diseinu hura 39. alea bitartean mantendu zen. Ondoren, 40. aletik aurrera Maite Rementeriak prestaturiko diseinu batekin kaleratu zen Galtzaundi. Azken hau, lehiaketa baten emaitza izan zen, garaile esan bezala, Elgoibarko Maite Rementeriak irabazi zuela. Urteek aurrera egin ahala, diseinu berriak izan ditu (13-19 orrietan 22 urteetako azalak ikusgai) Galtzaundi aldizkariak, egileak ere anitzak izanik: Zut! Kreatiboak, Zigor Agirrezabala, Maddi Trutxuelo, Jon Ander Ubeda, Goitik…

Alez ale aurrera egin ahala izen ugari azaleratzen joan dira Galtzaundi Aldizkariko erredakzio taldean: Karlos Mendibil, Josu Iztueta, Iñaki Epelde, Maite Mendia, Maite Artola, Xabier Urkia, Eduardo Alegria, Ramon Olasagasti, Fernando Rojo, Joseba Salbador, Xabier Telleria, Klisk, Lehen, J.M.Lopez, Richard, J. Urretabizkaia, Beatriz Armendariz, Iñigo Ceberio, Nerea Pikabea, Jesus Peñagarikano, Amando Hernandez, Gorka Salaberria, Eneko Aranburu, Laiene Anabitarte, Lordi Saralegi, Oihana Ugarte, Joxi Ubeda, Leire Asurmendi, Iñaki Azaldegi, Eider Goenaga, Maialen Zubeldia, Xanti Saizar, Irene Lezea, Txomin Garmendia, Joxe Agustin Arrieta, Garbiñe Biurrun, Marta Agirrezabala, Joxe Mari Iturralde, Itsaso Lasagabaster, Joseba Antxustegietxarte, Nerea Santxo, Alex G., Eguzki Amondarain, Amaia Sagasti, Silvana Ostiza…

Erabat bete ezineko zerrenda luzeaz ari gara. Hasierako urteak baino ez dituzte irudikatzen izen hauek guztiek. Hala ere, asko eta asko, urte hauen guztien poderioz Galtzaundi Aldizkarian kolaboratzaile gisa mantendu dira.

## Eskertzeko unea

Publizitateak hasieratik erabateko pisua izan du. Aldizkariak berak, 0 aleko azalean eskertu zuen bezala, iragarle askok eta askok proiektu honi hasieratik babesa erakutsi zioten: “gure eskerrik beroenak publizitate lekuak erosiz, ale hau kaleratzea posible egin duten guztiei. Abisu bat, mugitu hurrengo alean publizitatea erosi nahi duzuenok, honez gero erdia baino gehiago salduta dago eta”. Eta urteetan eta urtetan ere horrela jarraitu du, iragarleek “publizitate lekuak erosi” ez baino, azken urtetan “publizitate moduluak” kontratatuz. Ezinbestean, bi hamarkada luze hauetan hizkuntza bera ere moldatzen joan baita. Lerro hauek Galtzaundi Aldizkarian sinistu eta euren negozioak iragartzeko gune aproposa ikusi duten horiei eskerrak emateko dira.

Eskerrak ematen hasi eta jarraitu behar ezinbestean. Ezin ahaztu aldizkari baten proiektua kalean egoteak ahalbidetzen dituen hanka guztiak. Lehenengoz, urte hauetan guztietan Galtzaundi Euskara Taldea gidatu duten Zuzendaritza Batzordeak, hau da, zuzendaritzako kide izan diren guztiei eskerrik asko. Bigarrengoz, Galtzaundi Euskara Taldearen euskalgintzako proiektuan sinistu duzuen eta sinisten jarraituko duzuen bazkideak, zuei ere gure eskerrik beroenak. Hirugarrengoz, irakurleoi, esker aunitz; zuek gabe, bertan idatzi eta jasotakoak zentzurik ez. Laugarrengoz, eskualdeko eragileak gogoan izan beharrean gaude, horrenbeste eta horrenbeste albiste gurekin partekatzeagatik, mila esker. Eta azkenik, aldizkariko “langile” bihurtu diren horiei; kazetariei, kolaboratzaileei, diseinatzaileei, zuzentzaileei, argazkilariei, publizistei, banatzaileei, inprentari… Horrenbeste hanka eta esku dira 22 urte hauetan zehar eskertu behar direnak!

**Eskerrik asko, guztioi!**
**Ez adiorik!**



0
Galtzaundi
Tolosaldeko aldizkaria

1
Tolosa C.F.: Berazubin
zaletu gutxi

2
Abuztuaren 17ko gizenak ez zuen kolesterolik

3
Lehiaketa?
Gazta ala artzai

4
Elkartez elkarte
euskararen inguruan

5
Gure babarruna: mahai ganean nagusi

6
Feria: bailarako
topagunea

7
San Blas
itto arte arnas



8
Iñauteri
piztiok erne!

9
Papergintza
krisia

10
62.000 biztanle
ospitalerik gabe

11
25 urte herria
euskalduntzen

12
Lizartzako
futbol harrobia

13
Pareak bai?
Hiruxkiak ere bai

14
Nekazal turismoa
baserriaren arnas

15
Amerika eta Europa
kantuz elkarturik



16
Papergintza ondoren
metalgintza krisian

17
Labaien, gure altxor
preziatua

18
Sagardotegiak ugarituz doaz inguruan

19
Hurrengo Iñauterien
zain

20
Lete berriro
Tolosan

21
Denda txikiak
irtenbide bila

22
Ikastolen aldeko
apostua

23
Suaren gainean
dantzan



24
Ainhoa Arteta gure
ahotsa munduan

25
Ibaiaren kanalizazioa
eztabaidagai

26
Alde Zaharreko
etxebizitzak ezbaian

27
Leaburu eta Gaztelu
banatzeko prest

28
Eguberri
eta urte berri on!

29
Altzoko erraldoiaren
ondorengoak

30
Urte askoan
txapela kaskoan

31
Bailarako industria
jokoan



32
Agur urbano
zaharrari

33
Amorrainak
Orian

34
...eta goizaldean
baratzuri zopa!

35
Abraham Olano:
Anoetako ezpata

36
Txapelketa Leaburun,
Arrospide Txapeldun?

37
Abesbatzen mundua
gure eskuetan

38
Babarruna, bailarako
ondasuna

39
Elizara
aurpegi berria



40
Zakur lerak
Ruandaren alde

41
Zeruko musika
lurrean

42
Joxi eta Joxean
ahaztu ezinik

43
Ibarrako Uzturpe
ikastolak 25 urte

44
Alkate soinua

45
Gaua motzena,
festa handiena

46
Juanma Lillo, primerako entrenatzailea

47
Agur burnizko
Dinari



48
Ortzadarra Anoetako
zeruan

49
Txotxongiloen hariaren haritik

50
50 zenbakietan
zuekin

51
Haize berriak
eskoletara

52
Neguak zuritu
ditu kontuak

53
Musikari
erromantikoaren
mendeurrena

54
Kirola, kaltegarria
naturarentzat?

55
Hamaika komeria
XIV orduetan

## irakurri entzun Ikusi



Adiskide bat nuen
Joxean Agirre Odriozola

Hainbat gai txirikordatzen dira Agirreren nobela berri honetan, batzuk egilearen narratiban ohikoak direnak, eta beste batzuk orain agertzen direnak lehenengoz edo indar handiagoz: talde politiko klandestino baten barrunbeak modu aski fantastikoan kontatuak; norbere ixtura eta are izaera ere hartzen duen doblea; desira eta jelosia; emakume ezezagun baten mirestea…



77
Bide Ertzean

Memoria historikoa pop musikarako aldarrikatu du talde tolosarrak. Familiako gertaera latz batetik abiatu dira Imanol eta Joni Ubeda anaiak -1977an Guardia Zibilak kontrol batean hildako osaba baten oroitzapena- Espainiako diktaduraren osteko lehen urteak gogora ekartzeko.



Badira, Bagara
Olatz Artola, Itxaso Frau eta Marta Prol

Tuterako Argia ikastolaren egoeraren berri emateko dokumentala. Gai horretan eta Erriberan duen egoera euskal herritarrei ezagutarazteko asmoz, *Badira, Bagara* dokumentala egin dute Olatz Artola, Itxaso Frau eta Marta Prol Mondragon Unibertsitateko ikasleek, karrera bukaerako proiektu gisara.

# hitzorduak

Irailaren 27tik urriaren 11ra bitarteko

## Jaialdia

**Euskara eta zeinu hizkuntza jaialdia.** KMK13rekin elkarlanean. Gainditzenek antolatuta. Irailak 27, ostirala. Tolosa, Leidor. 20.00

## Irurako Samielak

**Irailak 27, ostirala.** Eskulan tailerrak, haurren bazkaria, jokoak, Poxpolo ta konpainia pailazo taldea, kalejira buruhandi eta erraldoiekin eta Loatzo Musika Eskolako trikitilari eta txistulariekin, txistor-jatea Share elkartean, Play Back jaialdia eta dantzaldia Ingo Al Deu taldearekin

**Irailak 28, larunbata.** Hegazti harraparien erakusketa Belatz elkartearen eskutik, dantza-soka, herri bazkaria, bazkalostea Kalean txarangarekin eta bertso saioa Andoni Egaña, Miren Amuriza, Aitor Mendiluze eta Onintza Enbeita bertsolariekin. Amaitzeko DJ Bull

**Irailak 29, igandea.** Diana txistulariekin, meza nagusia, Irurako dantzarien emanaldia eta ondoren hamaiketako herrikoia, "Ametsetan bizi" kale antzerkia Trapu Zaharrak taldearen eskutik, Andoaingo Joseba eta Bakartxo dantza eskolak eskainitako areto dantzen emanaldia frontoian eta 21.00etan Herensugea erretzea

**Urriak 3, osteguna.** Jubilatuen jokoak Zaharren Biltokian eta plazan

**Urriak 13, igandea.** Meza nagusia. Ondoren, Zaharren Biltoki berriaren inaugurazioa eta bazkaria Zaharren Biltokian, jubilatu eta pentsiodunentzat

## Bazkari eta afariak

**50 urtekoen arteko bazkaria.** Irailak 28, larunbata. 1963ko kintoa. Bazkalondoren DJa. Izena emateko: tolosa1963@hotmail.com. Tolosa, Fronton jatetxea. 14.00

**Bedaioko jaien ondorengo afaria.** Urriak 5, larunbata. Jaien balorazioa egiteko. Artubi elkarteak antolatuta

## Jaiak

**Alliriko jaiak.** Irailak 28 eta 29, larunbata eta igandea. Tolosa, Alliri auzoa

## Kirola

**Saskibaloia.** 4x4 herrikoia. TAKEk antolatuta. Irailak 29, igandea. Tolosa, Plaza Berria. 19.00

## Kz Gunea

**Berastegi.** Irailak 30, astelehena. 16.00

## Ikastaroa

**Lehen Sorospen Ikastaroa.** Irailaren 16tik urriaren 4a bitartean. Ikastaro teoriko-praktiko honekin lehen sorospenen oinarrizko ezaguerak ezagutuko dira. Egunero aurki daitezkeen arrisku egoera nagusiei ekiten irakatsiko da. DYA Gipuzkoak antolatuta. Tolosa, Kultur Etxea. 19.00

## KMK13

**Kilometroak 2013.** Laskorain Ikastolak antolatuta. Urriak 6, igandea.

## Tolosako Babarrunaren Bidaia

**Ereitetik platerera.** Urriak 6, igandea. Babarrunaren uztaren bilketan parte hartzeko aukera. Erreserbak: Tolosaldea Tour. Tel. 943 697 413 edo tour@tolosaldea.net. Urkizuko frontoia. 10.30

## Zinea euskaraz

**"Urtemuga".** Urriak 9, asteazkena. Ikastetxeentzat. Tolosa, Leidor. 09.00




## Ipuin Txokoa

**Urriak 11, ostirala.** 3-6 urte bitarteko haurrentzat eta euren gurasoentzat. Kontalaria: Miriam Mendoza. Tolosa, Errota Haur Liburutegia. 18.00

## Hitzaldia

**Paula Kasares.** Urriak 15, asteartea. Euskaraz ez dakiten gurasoei begirako hitzaldi/motibazio saioa eskainiko du Paula Kasaresek. Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta. Tolosa, Kultur Etxea. 18.30

## Telefono interesgarriak

| | | | |
|---|---|---|---|
| Alegia-Amezketa-Abaltzisketa-Albiztur | | Espezialitateak | 943 006 900 |
| Osasun zentroa | 943 653 212 | Amarozko dispensarioa | 943 672 637 |
| Altzo | | Asunzion klinika | 943 675 799 |
| Medikua | 943 654 737 | (larrialdiak) | 943 675 390 |
| Anoeta-Alkiza-Hernialde | | San Kosme San Damian | |
| Medikua | 943 652 339 | geriatrikoa | 943 672 932 |
| Baliarrain | | Udaltzaingoa | 943 675 858 |
| Medikua | 943 889 003 | Ur eta Argia (Tolargi) | 943 650 016 |
| | (asteazk.) | Ur zerbitzuak (aberiak) | 639 352 156 |
| Berastegi-Elduain | | Iurreamendi egoitza | 943 670 325 |
| Medikua | 943 683 361 | Larrialdiak, Suhiltzaileak | 112 |
| Bidegoian | | DYA | 943 672 536 |
| Medikua | 943 681 134 | Gurutze Gorria | 943 674 888 |
| Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu | | | 943 651 425 |
| Osasun etxea | 943 672 411 | Ertzantza | 943 673 022 |
| Ikaztegieta | | Tolosa Gasa | 943 675 320 |
| Medikua | 943 653 329 | Lizartza | |
| Irura | | Medikua | 943 682 077 |
| Osasun zentroa | 943 690 720 | Orendain | |
| Tolosa | | Medikua | 943 655 595 |
| Anbulatorioa, larriald. | 943 461 111 | Orexa | |
| Lehen mailako harrera | 943 006 800 | Medikua | 943 682 228 |

## Goardiako farmaziak

**Ostirala, 27**
Bronte C.
(Korreo, 20)
Tolosa

**Larunbata, 28**
Lejeune, Leyre
Euskal Herria, 46
Ibarra

**Igandea, 29**
Olarreaga M.
(M. J. Iraola, 10)
Tolosa

**Astelehena, 30**
Olarreaga I.
(korreo kalea 2)
Tolosa

**Asteartea, 1**
Morant R.
(Zabalarreta, 1)
Tolosa

**Asteazkena, 2**
Bengoetxea E.
(Kale Nagusia, 7)
Tolosa

**Osteguna, 3**
Bengoetxea E.
(Kale Nagusia, 7)
Tolosa

**Ostirala, 4**
Lejeune, Leyre
Euskal Herria, 46
Ibarra

**Larunbata, 5**
Santamaria I.
(Nafarroa etorb. 2)
Tolosa

**Igandea, 6**
Bronte C.
(Korreo, 20)
Tolosa

**Astelehena, 7**
Olarreaga I.
(korreo kalea 2)
Tolosa

**Asteartea, 8**
Bengoetxea E.
(Kale Nagusia, 7)
Tolosa

**Asteazkena, 9**
Morant R.
(Zabalarreta, 1)
Tolosa

**Osteguna, 10**
Olarreaga I.
(korreo kalea 2)
Tolosa

**Ostirala, 11**
Bronte C.
(Korreo, 20)
Tolosa

KEY-LAN
SARRAILGINTZA
Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA
Foruak, 5-bis • TOLOSA
Tel.: 943 652 712

jarri zure publizitatea
Galtzaundi
aldizkarian
Bidera Publizitatea
661 678 818
aetxaniz@bidera.eu

enpresa katalogoak
aldizkariak
logotipoak
liburuak
publizitate komertziala
kartelak
egutegiak
bannerrak
antza
komunikazio grafikoa
Zirkuitu Ibilbidea, 2 / 2. pabiloia · 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
Tel.: 943 370 738 / Faxa: 943 372 226 · info@antza.com · www.antza.com



ARALAR KIROLAK
Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916

# Muxutruk

## Lana

• Klase partikularrak. Maila guztiak, talde txikietan. Esperientzia. (Kristina). 652 739808

• Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo ume zaintzaile gisa aritzeko. 602 684094 (Amezketa)

• Ordenagailuak konpontzen dira. Sistema eragileen instalazioa, birusak, datu berreskuratzeak, hardware eta software arazoak. Prezio egokian. 622217736.

• Ingeleseko eta frantseseko klaseak, bakarka edo taldeka. Maila ezberdinak. Irakasle tituluduna. 664160268

## Etxebizitza

• 90m$^2$-ko pisua salgai Anoetako solkorre kalean . Egongela handia, hiru logela, sukaldea, komuna, trasteroa, ganbara ta bi balkoi. 130.000€ . 688 887 178

## Salgai

• Babycook gipsy estreinatu gabea salgai. Honekin batera arroza egitekoa, eta gris koloredun Babycook poltsa. Guztia 100 eurotan. 676583327

## Erosketa

• Teutonia markako bigarren eskuko maxi cossia erosiko nuke. Interesatuak 635708540 zenbakira deitu mesedez. Mila esker

## Alokairua

• Alokairuan (Uztaila-Abuztua/urte osoan) edo salgai (170.000€) 50m2ko pisua eta 25m2ko garajea Amezketan. Erabat hornituta. 634139621

# Horoskopoa

Irailaren 27tik urriaren 11 arteko aurreikuspena

## aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Lan kontuak desorekatu egingo dira, aukera ez-ohikoak aurkeztuko zaizkizu, baiezkoa eman aurretik baldintzak ondo azter itzazu. Lasaitzea komeni zaizu, bestela inork ez zaitu lankide gisara onartuko.

## taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Bikotearekin harremana ikuspuntu espiritualago batetik landu beharko duzu. Bikotearengan topatuko duzun epeltasunak hunkituko zaitu. Lan arloan aldaketak datoz, urduritasun garaian murgilduko zara.

## gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Egunean zehar atseden hartzeko unea errespetatu beharko zenuke, paseatzeko eta burua lasaitzeko aprobetxatuz. Natura giroan paseatzeak zein bizikletan ibiltzeak lagunduko dizu. Sormen proiektuek arrakasta izango dute.

## cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Berritasunik ez. Bakeak eta egonkortasunak zure bizitzaren ardatza izaten jarraitzen dute. Lan arloan ere ondo sentituko zara. Bizitza moldagarria izan daiteke, ate berri bakoitzak arrakasta ekar dezake.

## leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Ez ezazu bikotea setiatu, ez ezazu behartu erabaki azkarrak hartzera. Pazientzia garatzen ikasi beharko zenuke. Betiko lagunek zure beharra izango dute, zita bat adostu ezazu. Familia erlazioek tentsioa sortzen dizute, bikoteak horretan lagunduko dizu.

## virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Datozen egunetarako giltza autoestimuan kokatzen da, bai lanari dagokionean eta baita maitasunaz mintzatzerakoan ere. Adiskidetsua izan zaitez, egozentrikoa bilakatu gabe.

## libra

Irailak 23-Urriak 22

Aukera ekonomiko berriak, erabaki zuzenenekin ingurukoak aho-zabalik utziko dituzu. Baliteke etxe aldaketa bat uste baino gertuago egotea. Zure bihozkadak errealitate bihurtu daitezke.

## scorpius

Urriak 23-Azaroak 22

Irudimena martxan jartzeko eta pasioa pizteko unea da, erabat itzali aurretik. Gogoratu, zoriontsu izatea zure esku dagoela. Ekonomia aldetik berri pozgarriak jasoko dituzu datozen egunotan.

## sagitarius

Azaroak 23-Abenduak 21

Kanpora atera eta leku berriak ezagutzeko egunak dira ondorengoak. Atseden hartu eta erretzeari utzi. Sormen senaz jabetu zaitez eta buruan dituzun amets horien bila lanean has zaitez. Egunerokotasunari baikortasunez ekin.

## capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20

Lan arlori dagokionez, une aproposa da buruan dituzun negozioei ekiteko. Erantzunak aurkitzeko, galderak luzatzea bezalakorik ez dago. Hala ere, gogoratu harrokeriaz jokatuz gero emaitzak ezkorrak izan daitezkeela.

## aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Maite dituzunekin kontaktuan egoteko gaitasuna duzu. Zoriontsu izateko gaitasuna zure esku dago, maitatzen jakinez gero, zoriontasuna uste baino lehen hurbilduko da. Zure sentimenduak inoiz baino argiago izango dituzu.

## piscis

Otsailak 21-Martxoak 20

Zauden egoeran zaudela, onena atsedena eta oporrak hartzea izango da. Atsedena hartzeko gaitasuna izanez gero, gerora begirako emaitzetan antzemango duzu. Kontu material eta espiritualen artean oreka lortu behar duzu.




Komikia: Joseba Antxustegietxarte






# autobusa

# nafarroa oinez 2013

urriaren 20an, Tuteran

Salneurria: 12 € (bazkideak 10€)

Irteera: goizeko 8:30ean Tolosako zezen plazatik

Itzulera: 19:00etan

Izen ematea Galtzaundiko egoitzan

galtzaundi

Nafarroa etorbidea, 6-behea.
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
943 655 004
www.galtzaundi.com